## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**798**

**Urtarrilaren 28ko 1/2010 EBAZPENA, Ogasun zuzendariarena, Batasunaren barruko eragiketak laburbiltzen dituen aitorpenaren (349 eredua) eduki eta epeei buruzkoa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeari buruzkoa.**

2008. urtean Europako zenbait zuzentarau onartu dira Balio Erantsiaren Zergaren inguruan.

Hainbat arrazoiengatik ezin izan dira Batasuneko administrazioko xedapen horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegian egokitu indarrean sartu aurretik, hau da, 2010eko urtarrilaren 1a baino lehen.

Hori dela eta, egokitzapen horiek egiten diren bitartean, Batasunaren barruko eragiketak laburbiltzen dituen aitorpenaren (349 eredua) eduki eta epeei buruzko ebazpen hau aldi baterako onartuko da.

EBATZI DUT

1. artikulua.- Batasunaren barruko eragiketak laburbiltzen dituen aitorpenaren (349 eredua) eduki eta epeak.

1. 2006/112/EE Zuzentarauaren 262 artikuluan eta Zergaren Arautegiaren 78-80 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresaburu eta profesionalek Batasunaren barruko ondasunen emate eta eskuratzeak eta zerbitzu emateak laburbiltzen dituzten aitorpenak aurkeztu beharko dituzte, eta aitorpenean ondasunen hornitzaile eta eskuratzaileen identifikazio datuak, zerbitzu emaile eta hartzaileen datuak eta horietako bakoitzarekin egindako eragiketen zerga oinarri osoa jarri beharko dute.

Laburpen aitorpena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zehaztutako baldintzak eta zehaztasun teknikoak dituen inprimakiaren bidez egin beharko da. Inprimaki hori Sailaren web orrian dago.

2. 2006/112/EE Zuzentarauaren 262 artikuluaren c) letran xedatutakoarekin bat etorriz, Batasunaren barruko zerbitzu prestaziotzat joko dira baldintza hauek betetzen dituzten zerbitzu prestazioak:

a) Prestazio horiei dagozkien kokapen arauen arabaera, zerbitzua zergaren aplikazio lurraldean ez ematea.

b) Batasuneko beste Estatu batean kargapean egotea.

c) Hartzailea enpresaburua edo profesionala izan behar da eta halakoa den aldetik aritu behar da, eta bere jarduera ekonomikoaren egoitza Batasuneko Estatu horretan izan behar du, edo establezimendu iraunkorra izan behar du bertan edo, bestela, bere etxebizitza edo ohiko bizilekua; izan daiteke hartzailea enpresaburu edo profesional moduan ari ez den pertsona juridikoa izatea, baldin eta Batasuneko Estatu horrek Zerga horren ondorioetarako identifikazio zenbaki bat esleitua baldin badu.

d) Subjektu pasiboa hartzailea izatea.

3. 2006/112/EE Zuzentarauaren 262. eta 265. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, eragiketak zerga sortu den epealdiari dagokion laburpen aitorpenean jaso beharko dira.

4. 2006/112/EE Zuzentarauaren 263. artikuluan eta Zergaren Arautegiaren 81. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hauek izango dira aitorpenaren epealdia eta aitorpena aurkezteko epeak:

1.- Oro har, laburpen aitorpena hilero aurkeztu behar da, hurrengo hileko lehen hogeita bost egunetan; salbuespena: uztaileko aitorpena, abuztuan eta iraileko lehen hamar egunetan aurkez daiteke.

2.- Laburpen aitorpenean jaso beharreko ondasun emate eta zerbitzu prestazioen zenbatekoak guztira 100.000 euro gainditzen

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**798**

**RESOLUCIÓN 1/2010 del Director de Hacienda de 28 de enero, relativa al contenido y plazos de presentación de la declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, modelo 349 y asignación del número de identificación fiscal a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido.**

Durante el año 2008 se han aprobado una serie de directivas comunitarias en relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Por diversos motivos no se han podido realizar las adaptaciones oportunas, de las referidas disposiciones de Derecho comunitario, en la normativa relativa al Impuesto sobre el Valor Añadido con anterioridad a la fecha de su entrada en vigor, el día 1 de enero de 2010.

Por tanto, se cree conveniente aprobar de forma transitoria, hasta que dichas adaptaciones se realicen, esta resolución relativa al contenido y plazos de presentación de la declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, modelo 349.

RESUELVO

Artículo 1. Contenido y plazos de presentación de la declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, modelo 349.

1. De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 262 de la Directiva 2006/112/CE y 78 a 80 del Reglamento del Impuesto, los empresarios y profesionales deberán presentar una declaración recapitulativa de las entregas y adquisiciones intracomunitarias de bienes y de las prestaciones intracomunitarias de servicios que realicen, consignando en la misma los datos de identificación de los proveedores y adquirentes de los bienes y los prestadores y destinatarios de los servicios, así como la base imponible total relativa a las operaciones efectuadas con cada uno de ellos.

La presentación de dicha declaración recapitulativa se realizará a través de un formulario que deberá reunir los requisitos y las especificaciones técnicas determinadas por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos y que se encontrará alojado en su página web.

2. De acuerdo con lo dispuesto en la letra c) del artículo 262 de la Directiva 2006/112/CE, se considerarán prestaciones intracomunitarias de servicios las prestaciones de servicios en las que concurran los siguientes requisitos:

a) Que, conforme a las reglas de localización aplicables a las mismas, no se entiendan prestadas en el territorio de aplicación del Impuesto.

b) Que estén sometidas efectivamente a gravamen en otro Estado miembro.

c) Que su destinatario sea un empresario o profesional actuando como tal y radique en dicho Estado miembro la sede de su actividad económica, o tenga en el mismo un establecimiento permanente o, en su defecto, el lugar de su domicilio o residencia habitual, o que dicho destinatario sea una persona jurídica que no actúe como empresario o profesional pero tenga asignado un número de identificación a efectos del Impuesto suministrado por ese Estado miembro.

d) Que el sujeto pasivo sea dicho destinatario.

3. De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 264 y 265 de la Directiva 2006/112/CE, las operaciones deberán consignarse en la declaración recapitulativa correspondiente al período de declaración en el que se hayan devengado.

4. De acuerdo con los artículos 263 de la Directiva 2006/112/CE y 81 del Reglamento del Impuesto, el período de declaración y los plazos para la presentación de la declaración recapitulativa serán los siguientes:

1º Con carácter general, la declaración recapitulativa deberá presentarse por cada mes natural durante los veinticinco primeros días naturales del mes inmediato siguiente, salvo la correspondiente al mes de julio, que podrá presentarse durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre.

2º Cuando ni durante el trimestre de referencia ni en cada uno de los cuatro trimestres naturales anteriores el importe total de las

ez baditu (Balio Erantsiaren gaineko Zerga aparte) ez dagokion hiruhilekoan ez aurreko lau hiruhileko bakoitzean, aitorpen laburpena hiruhileko epealdia amaitu eta hurrengo hilabetearen lehen hogeita bost egunetan aurkeztu beharko da.

Hiruhileko bakoitzaren hil amaieran aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa gainditкоko balitz, hiruhilekoa hasi denetik igaro diren hilabeteei dagokien laburpen aitorpena aurkeztu beharko da, hurrengo lehen hogeita bost egunetan.

5. Urtearen azken hiruhilekoari dagokion adierazpen-kitapena urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

6. Artikulu honetako 4. zenbakian xedatutakoa gorabehera, eta Zergaren Arautegiaren 81. artikuluaren 3. atalari jarraituz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak baimendu ahal izango du laburpen aitorpena urte naturalekoa izatea, enpresaburu edo profesionalek honako bi baldintza hauek biltzen dituztenean:

1. Aurreko urtean egindako ondasun eta zerbitzu emateen guztizko zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe, 35.000 euro baino gehiagokoa ez izatea.

2. Zergaren Foru Arauaren 25. artikuluko bat eta hiru ataletan xedatutakoari jarraituz, aurreko urtean emandako ondasunen guztizko zenbatekoa, garraiobide berriak ez direnak, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe, 15.000 euro baino gehiagokoa ez izatea.

2. artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzea.

2006/112/EE Zuzentarauaren 214. artikuluko d) eta e) letretan xedatutakoari jarraituz, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautu dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuko 9. artikuluko 1. idatz zatian definitzen den identifikazio fiskaleko zenbakia, Foru Dekretu horretako 9. artikuluko 2. atalean zehaztutako pertsonei eta beste pertsona edo erakunde hauei ere ezarri beharko zaie:

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio eremuan egoiliartuta ez dauden enpresaburu edo profesionalek emandako zerbitzuen hartzaileak diren enpresaburu edo profesionalei, horien subjektu pasibo badira.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio eremuan kokatzen ez diren zerbitzuak ematen dituzten enpresaburu edo profesionalei, subjektu pasiboa zerbitzuen hartzailea bada.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko urtarrilaren 28a.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

entregas de bienes y prestaciones de servicios que deban consignarse en la declaración recapitulativa sea superior a 100.000 euros, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, la declaración recapitulativa deberá presentarse durante los veinticinco primeros días naturales del mes inmediato siguiente al correspondiente período trimestral.

Si al final de cualquiera de los meses que componen cada trimestre natural se superara el importe mencionado en el párrafo anterior, deberá presentarse una declaración recapitulativa para el mes o los meses transcurridos desde el comienzo de dicho trimestre natural durante los veinticinco primeros días naturales inmediatos siguientes.

5. En todos los casos a que se refiere el número 4, la declaración recapitulativa correspondiente al último período del año deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero.

6. No obstante lo dispuesto en el número 4 de este artículo y de acuerdo con el apartado 3 del artículo 81 del Reglamento del Impuesto, el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos podrá autorizar que la declaración recapitulativa se refiera al año natural respecto de aquellos empresarios o profesionales en los que concurran las dos circunstancias siguientes:

1º Que el importe total de las entregas de bienes y prestaciones de servicios, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, realizadas durante el año natural anterior no sea superior a 35.000 euros.

2º Que el importe total de las entregas de bienes, que no sean medios de transporte nuevos, exentas del Impuesto de acuerdo con lo dispuesto en los apartados uno y tres del artículo 25 de la Norma Foral del Impuesto realizadas durante el año natural anterior, no sea superior a 15.000 euros.

Artículo 2. Asignación del número de identificación fiscal a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido.

De acuerdo con lo dispuesto en las letras d) y e) del artículo 214 de la Directiva 2006/112/CE, el número de identificación fiscal definido en el apartado 1 del artículo 9 del Decreto Foral 71/2008, de 8 de julio, que regula las obligaciones relativas al número de identificación fiscal y su composición deberá asignarse, además de a las indicadas en el apartado 2 del artículo 9 del citado Decreto Foral, a las siguientes personas o entidades:

1º Empresarios o profesionales que sean destinatarios de servicios prestados por otros empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido respecto de los cuales sean sujetos pasivos.

2º Empresarios o profesionales que presten servicios que no se localicen en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido cuando el sujeto pasivo sea el destinatario de los mismos.

Vitoria-Gasteiz, 28 de enero de 2010.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## Iragarkiak

### TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**794**

**Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailak 2009ko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean emandako dirulaguntzak.**

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan xedatutakoa betez, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailak 2009ko urriaren 1etik abenduaren 30era bitartean emandako dirulaguntzak argitaratzen dira ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 3a.– Lurralde Orekaren zuzendaria, IÑAKI NAFARRETE KORTABARRIA.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACION LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**794**

**Subvenciones concedidas por el Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial del 1 de octubre al 31 de diciembre del 2009.**

En cumplimiento de la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava, a continuación se publican las subvenciones concedidas por el Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial del del 1 de octubre al 31 de diciembre de 2009.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2010.– El Director de Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRETE KORTABARRIA.